

XIX. MENDEKO ETXEAK

XIX. mendearen iristearekin, hainbat aldaketa garrantzitsu eman ziren ideologian, eta ondorioz, gizartean ere bai. Gizarte klase berri batek, burgesiak, boterea irabazi zuen Euskal Herri osoan zehar, industrializazio testuinguru batean, batez ere XIX. mendearen bigarren erditik aurrera.

HERRIAREN BERRERAIKITZEA:

Ermuko industrializazio prozesua ez zen oso garrantzitsua izango garai honetan, izan ere, herriko enpresa gehienek familiarrak izaten jarraituko zuten hein handi batean. Ez zen ala gertatu industrializazio prozesu hau ekartzen ari zen eraikuntza eredu berriekin: XVIII. mende amaieran, Konbentzio Gerraren testuinguruan, herria txikituta geratu zen (zortzi bat etxe bakarrik geratu ziren zutik), eta berreraikitzean eredu berriak aplikatuko ziren.

Berreraikuntza hau ez zen txikizioa eman eta berehala burutuko, pixkanaka baizik, batez ere XIX. mendearen bigarren erdian emango zelarik. Honen arrazoa aurkitzeko XIX. mendeko lehen erdiko herriko ekonomiaren egoera txarrera jo behar dugu: Konbentzio Gerrateak lehenengo eta Independentziaren Gudak ondoren, aurreko mendetik zetorren krisi ekonomikoari lotuta, galera ekonomiko handiak ekarri zizkieten herriari, eta hauei aurre egiteko, udal lur asko pribatizatu behar izan zituzten, herriaren berreraikitzea zailagoa eginez.

XIX. mendearen bigarren erdian berriz, jada erreperatuagoa zegoenean ekonomia egonkortasun politiko handiago bati esker, eta arma produkzioaren berreskuratzeari esker, obra publiko handiagoei ekin ahal izan zion kontzejuak, batez ere 1860tik aurrera. Une honetan eraikiko ziren Orbe Kardinalaren plaza, frontoia, edo Izelaietako labaderoa, esaterako.

Etxeei dagokienean, zenbait etxe azpimarragarri, garaiko mentalitatea ondo irudikatzen dutenak aurki ditzakegu: Valdespina Markesaren kaleko 3 eta 5 zenbakiak; Santiago Plazako arkudun etxeak; Erdiko Kaleko 5, 7, 9 eta 11 zenbakiak; Orbe Kardinalaren Plazako 4, 5, 6 eta 7 zenbakiak.

EZAUGARRI AMANKOMUNAK:

Etxe guzti hauek ezaugarri amankomun batzuk dituzte, garaiko mentalitatea islatzeko baliagarri zaizkigunak: Eraikuntza hauek, aurrekoekin alderatuz, askoz arrazionalago eta praktikoagoak izango dira, apalagoak ere izango badira ere. Neoklasikoa izango da beraien estiloa, hau da: adornu gutxikoak, apalak, simetria bilatzera joko dute, beraien ezaugarri nagusiak sendotasuna eta proportzionaltasuna, luxu itxuraren gainetik izanik.

Hiru edo lau pisuko eraikuntzak izango dira, paretak harlangaitzezkoak dituztenak, fatxadaren zenbait zatitan, ertzak esaterako, harlandua erabiliko bazuten ere. Harlangaitza igeltsuz estalita egongo da kasu askotan, igeltsua pintatuta egongo delarik. Balkoiak ohikoak izango dira eraikin hauetan, bertako bizi baldintzak hobetzen lagunduz. Teilatu txiki bat, etxeen aurrekaldea estaltzen duena, askotan aurkituko dugu.

Barnealdeari dagokionean, beren etxebizitza pribatu izaera dela eta, ezin dugu ezer jakin, eta honen aurrean, garai bereko beste etxe batzuekin alderatuz suposizioak egin besterik ezin dugu:

Garaiko etxeen antolamenduaren arabera, beheko pisuan tailer edo denda bat egongo zen, etxebizitza bezala lehenengo pisutik aurrera erabiliz. Lehenengo pisu hau, eraikuntzaren jabearen etxebizitza izango zen, askotan jabe bakarrarenak izango baitziren eraikuntza osoak. Alokairuan jarria bazegoen berriz, pisurik garestiena izango zen. Gainerako pisuak alokairuan egotea ohikoa izango zen. Lehenengo pisua erosoena eta luxuzkoena izango zen, sarrerarik errazena berak izango baitzuen, eta tenperatura aldaketetatik babestuen ere, bera egongo baitzen. Ganbara berriz zerbitzariarentzat izango zen, edo alokairurik merkeena ordaintzen zutenentzat; izan ere, okerren argitua, irisgarritasunik okerrenea zuena, eta hotzena zen.

ERAIKUNTZA NEOKLASIKOAK:



Orbe Kardinala 4,5,6,7

Izen honen pean izenda ditzakegu: Orbe Kardinalaren Plazakoak, 4, 5, 6, 7 zenbakiak; Erdiko Kale 5, 7, 9 zenbakiak eta Valdespina Markesaren Kaleko 5, 7. Denek ezaugarri antzekoak dituzte, dintelekin leiho inguruetan eta balkoiak ia leiho bakoitzean. Azpimarragarria da Orbe Kardinalaren Plazako 4. zenbakia, garaiko mentalitatea, simetriaren bidez edertasuna erakutsi nahia, oso ondo erakusten baitu.

Kontserbatzen ez badira ere, beiratezko leihoak izango zituen eraikuntza honek. Lehenengo pisuko harlanduek luxu puntu bat gehituko diote eraikuntzari, eta balkoi azpietako kurban dauden euskarriek ere bai.

Santiago plazako etxeak ere azpimarragarriak dira, dituzten arkupeengatik batez ere.

Eraikuntzaren kanpoaldearen analisia:

Hiriaren zati bilakatzeko pentsatua zegoen etxea zen hau: Arkupeetan merkatua ezartzeko helburua zuen, euri egunetan, herriaren itxura edertzeaz gain.

Gaur egun etxe pribatuak izango dira oraindik ere, hiru pisukoak ganbararekin. Harlangaitzez eginak izango dira, baina dintelekin leiho zuloetan, balkoiekin leiho guztietan (gogoratu beharrekoa da balkoiek etxebizitzari kalitatea eransten ziotela).



Harlandua izango du izkinetan eta arkuetan.

Eraikuntzaren gehiengoa Santiago Plazara begira dago, Erdiko Kalera begira arku bat bakarrik egonik. Arkupea osatzen duten sei arkuak erdi puntukoak izango dira.

Eraikuntza neoklasikoaren adibide barruan sar dezakegun beste eraikuntza bat Valdespina Markesa Kalearen 5. zenbakia dugu.



Valdespina Markesa, 5

BESTE ZENBAIT ERAIKUNTZA INTERESGARRI:

Beste zenbait eraikuntza interesgarri ere izango ditugu, ezin izango ditugunak eraikuntza neoklasiko eredu honen barruan sartu.



Deskripzio honen barruan sar dezakegu Izelaieta kaleko 4. zenbakia, luxu handikoa, bi balkoirekin eraikuntzatik ateratzen direnak, eta beste hiru eraikinaren barruan sartutakoak, denak ere oso apaindura konplexuekin. Erdi puntuko arku bat, dobela ta guzti izango du sarreran, eta euskarri kurbadunak lehenengo pisuko balkoian.

Izelaieta, 4

BIBLIOGRAFIA:

- Buxan, X.M. (1988) *“Arquitectura en Ermua”* Revista Villa de Ermua, Num. 8, Pags 14-15.
- Pinedo, J.A (1996) *“Ermua, Mallabia eta Zaldibar. Bizkaiko Herrien Monografiak”*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia.
- Zabala, M. (1996) *“Esbozo documental para la Historia de Ermua”* Ermua: Ayuntamiento de Ermua.

EGILEA:

Maddalen Zabaleta.